

174. FITXA GIPUZKOA - Udalerrri eta toki-erakunde txikientzako laguntzak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide sareko errepideen inguruan bide segurtasuna hobetzeko jarduketetarako

Nori zuzendua: 4.000 biztanle baino gutxiagoko Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrriak eta udalerrria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeak

Sarbide-esteka: [Egoitza elektronikoa – Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak aldatzea eta 2025eko deialdia onestea: Udalerrri eta toki-erakunde txikientzako laguntzena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide sareko errepideen ingurunean bide segurtasuna hobetzeko jarduketak egin daitezen \(1-SU-72/2025\)](#)

Eremuak: Bide segurtasuna

Zenbatekoa: 750.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/24

Laburpena

Laguntza hauen helburua da **Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide sareko** errepideen ingurunean jarduerak sustatzea, errepide horien **bide segurtasuna hobetzeko**.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Honako jarduera hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- Foru errepideen sareko sarbideetan ikusgarritasuna hobetzea, bai aldaketa geometrikoak eginez, bai sartzeetan segurtasuna hobetzen duten gailuak instalatuz.
- Erabiltzaile zaurgarrien bide segurtasuna hobetzea, dauden ibilbideak eta pasabideak hobetuz edo berriak eginez.
- Sarbideen azken zatiak hormigoitzea eta/edo asfaltatzea, foru titulartasuneko errepideetan galtzada zikintzea saihesteko.
- Sarbideetatik foru errepideetara isur daitezkeen urak jasotzea.

- Foru titulartasuneko errepideetako zeharkako drainatze obretara material garraioa murriztea dakarten obrak egitea.
- Seinaleztapena, semaforizazioa eta argiztapena jartzea, foru errepideetako bidegurutzeen bide segurtasuna hobetzeko.
- Garraiobideen intermodalitatea sustatzen duten edo tokiko mugikortasuna hobetzen duten azpiegiturak eraikitzea. Autobus geltokiak egokitzea eta hobetzea sartzen da.
- Aparkaleku plazak sortzea, garraio moduen intermodalitaterako eta/edo zeharbidea hobetzeko bide segurtasunari dagokionez.

Diruz lagun daitezkeen gastuak

Jarduketak jabari publikoko lurretan egin beharko dira.

Erakunde bakoitzak **eskabide bakarra** aurkeztu ahal izango du, eta **gehienez ere hiru proiektu deialdi bakoitzeko**. Proiektu bakoitzak diruz lagundu daitezkeen jardueraren bat jaso beharko du errepide sareko kokaleku bakar batean. Horietako bakoitza banaka baloratuko da.

Ez dira diruz lagunduko jarduketekin lotutako proiektuak idazteagatik eta obren zuzendaritzagatik ordainduko diren ordainsariak.

Gastuetarako aldi hautagarria

2025eko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatutako inbertsioak lagundu ahal izango dira diruz.

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak, balorazio irizpideen ondoriozko lehentasun hurrenkeraren arabera hautatuak, **2025eko azaroaren 29a edo 2026ko urriaren 15** baino lehen justifikatu beharko dira. Proiektu berak aurkeztu ahal izango du dirulaguntza 2025ean eta 2026an ordaintzeko hautagaitza, eskabide ereduari adierazita.

Laguntzen zenbatekoa

Diruz lagundutako proiektuen gutxieneko inbertsioa (aurrekontua) **3.000 eurokoa** izango da.

Erakunde eskatzaile bakoitzari **gehienez 40.000 euroko** dirulaguntza emango zaio deialdi bakoitzeko. Laguntza horiek izango dira egindako inbertsioen zenbatekoaren gaineko zuzeneko dirulaguntza motakoak, honako ehuneko hauetan, biztanle kopuruaren arabera:

- 1.000 biztanle baino gutxiago: % 85.
- 1.000tik 2.499 biztanle arte: % 70.
- 2.500etik 4.000 biztanle arte: % 60.

Diruz lagundu daitezkeen proiektu guztiei dagozkien laguntzen hasierako kalkulua egin ondoren deialdiko kreditua agortzen ez bada, aurreko paragrafoan adierazitako erakunde eta deialdi bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 15.000 euro handituko da, eta soberakina proiektuen artean banatuko da, muga berriaren arabera. Zenbateko horri ondoz ondoko gehikuntzak aplikatuko zaizkio deialdiaren kreditua agortu arte, baina ezin izango dira inola ere gaintu aurreko paragrafoan adierazitako dirulaguntzen ehunekoak.